

Erosotasun eta koherentzia kontu batengatik, esan nion pertsonaia-ri: «Jon izango zara». Logikoa iruditzen zitzaidan, jakinda irakurle-ari zalantzak sorrarazi ahal zizkio- la. Baina *Los extraños*-en agerikoa da kontatzen dena ez dela autofik- zioaren eremuan sartzen.

Une batean, zera dio Jonek: «Armiarma pertsonengan sartzen da, eta aldatu egiten ditu. Denborekin, haien ahoaren bidez hitz egiten du, eta nahi bezala erabiltzen ditu». Zer da, zuretzat, armiarma?

Armiarma da jende gehienari noizbait jauzi egiten dion malen- konia edo nahigabea. Batzuetan bizkar gainera igotzen zaigu, arra- zoiak ondo ulertu gabe. Gehienok, gainera datorkigunean, aurrera egiten dugu familian edo egiteko- etan babestuta, baina pertsona ba- tzuei oso gogor heltzen die armi- ar- mak, pozi indartsuagoa ziztatzen die, eta, azkenean, armiarma jasa- tea bihurtzen zaie eguneroko lana.

Beste une batean, Jonek eta ai- tak elkarriz hitz egiten diote, baina solasaldi horretako pasarte ba- tzuk kanpoan utzi dituzu. Gusta- tzen zaizu irakurleari hutsuneak betetzeko aukera uztea?

Ni irakurlea naizenean ere, gusta- tzen zait hutsuneak betetzea. Gau- za bat oso garbi daukat: diberti- mentu komertzial huts bat –eta zentzu onean esaten dut– eta beste nahi batzuk dituen literatura bereizten dituen hori da: dena ez esatea. Irakurlearen inteligentzia aitortzearen sinonimoa da hori.

Edozein narratzailek duen erre- minta boteretsua da hori, irudi- mena, baina ez berea, baizik eta irakurlearena. Askotan, narratiba da irakurtzen ari den pertsonaren irudimena aktibatuko duten ba- liabideak bilatzea. Modu horretan, istorioa hazi dadin eta irakurle ba- koitzak pertsonalizatu dezan. Ho- rrek, gainera, liburuari oraina gainditzea ahalbidetzen dio.

Itzultzailea ere bazara. Zer iraka- sten dizu langintza horrek sormen lanerako?

Pazientzia irakasten dit, eta umil- tasuna eta ambizioa ere bai. Ikasten duzu egileei errespetua galtzen. Irakurle gisa izan ditzakezu idolo- ak, baina, idazle gisa, ez. Bestela gainetik beti izango duzu muga bat. Nobela bati azterketa zorrotza egiten diozunean hainbat hilabe- tetan, ohartzen zara denek egiten ditzutela akatsak, eta horrek erama- ten zaitu umiltasunera. Zu bai- no askoz hobeak diren idazleak akatsak egiten badituzte, zuk as- koz handiagoak egingo dituzu. Baina horrek ez du izan behar oz- topo bat, gero eta hobeto egiteko bultzada bat baizik.

Zer den 'basque'

Irati Majuelo

Heldu da uda, zeru ur- dina eta europarren azal zuriak eguzki- pean kiskaltzen, pulse- ratxoak eskumuturrean, eguzki betaurrekoak, *oufit* ez-axolati neurtuak. Oholza gainean na- zioarteko pop talde ezaguna, edo pop-rocka zen, indie, techno edo trapa, berdin da, bozgorailuak topera. Jendetzaren itsasgora eta itsasbeheren artean, belar hori- tua, plastikozko edalontziak za- bor tontorretan. Kantariak azken oihua egin du, azken riff ezinez- koa gitarra joleak, baterian azken plater jolasak. Publikoaren ez- tanda, koloretako konfetiak le- hertu dira airean. Su festa ikusga- rri bat.

Dirua jaso eta amaitu da festi- bala, zer da geratzen dena? «*The magic of the mountain*», esango lukete BBK Live antolatzaileek, «*basque experience*», aldarrika- tuko Basque FESTekoek, «*a li- festyle*», Bay of Biscay-n egonda-

koek. Zer esan nahi du horrek, baina? Galdera horri tiraka, Eus- kal Herrian gaur egun egiten di- ren musika festibalen oholza gainekoak eta azpikoak, esloga- netako leloak eta promotoreen bulegoetako asmoak arakatu ditu Jon Urzelaiak Susa argitale- txearekin plazaratu berri duen saiakera mamitsuan.

Egungo festibalizazio fenome-



'Su festak'

Idazlea: Jon Urzelai Urbieto. Argitaletxea: Susa.

nora iritsi aurretik, baina, musika jaialdien sorrerara jotzen du le- hendabizi idazleak, bai AEBetako lehen kontzertu kontrakultural eta bakezale jendetsuetara, bai Mairuelegorretako kobazuloko kontzertuen oihartzunera. Eta handik abiatuta, musikak zein jaialdiek duten sozializazio inda- rrei egiten die beha, euskaltasun ereduak eraikitzerakoan izan du- ten garrantziari, komunitatea sa- retzeko eta politizatze egin du- ten lanari. Hala, euskal unibertso musikalaren errepaso esangura- tsua egiten du, garairik garai Eus- kal Herrian zein nazioartean ger- tatzten ari ziren aldaketa kultural, soziopolitiko eta ekonomikoak aintzat hartuz: kantagintza be- rria, euskal rock erradikala, Berri Txarrak-en fenomenoak, EHZ zein Gazte Topaguneetako jaialdiak, gaztetxeen zirkuituak eta liberti- menduak, besteak beste.

Aipaturiko ekimen musikalek bulkada eraldatzaileak, izpiritu kontrakulturala edota komuni- tatea biltzeko xedea bazuten, or- dea, azken urteetan loratu diren musika festibalek guztiz bestela- ko balioak dituztela salatzen du Urzelaiak: instituzioetatik bultza- tutako jaialdiak izan ohi dira,

promotora handiek antolatutak eta atzerriko turismoa helburu dutenak; Euskal Herria marka gisa saltzen dutenak. Hori dela eta, nazioartean gailentzen den eredu horrek sorrarazten dituen arazoak gure testuinguruarekin gurutzatzen ditu idazleak, eta eragiten dituen turistifikazio eta folklorizazio prozesuak azaltzen ditu, besteak beste.

Saiakera sendo eta interesga- rria osatu du Urzelaiak, genero honek hartu ohi duen idazkera akademiko lehorretik urrundu eta estilo adierazkorra lantzen baitu, ideien argudiaketari be- zainbat azaldu nahi duenaren ar- gitasunari bideratua. Hori hala, digresioak biderkatzen dira, ha- rria erabat galdu gabe, eta joan- etorriei esker testua aberastuz. Izan ere, informazio asko lantzen da liburu honetan, izan gertaera historikoak, anekdotak, kon- tzeptu musikalak, datu soziologi- ko zein ekonomikoak, baita be- tiere esan nahi denaren mesede- ra, erreferentzien kateatzean irakurlea ito gabe. Ikuspuntua argi du idazleak eta horrek indar- tzen du lana bera; saiakeraren helburuari bete-betean heltzen dio, beraz.

Purrrut!

HAUR ETA GAZTE LITERATURA

Imanol Mercero

Ipuina bere osotasunean ulertzeko ezinbesteko izan- go zaio irakurleari aurreko albumak irakurtzea, edo birgogoratzea. Gogoan hartu be- har dugu lan hau bilduma baten laugarren titulua dela, dagoene- ko otso, arkume eta krokodiloa- ren adiskidetasuna justifikatzen duten ezinbesteko aleez osatua.

Bai, izenburuak azpimarratzen duen legez, tigrea da pertsonaia berria, baina ez, ordea, protagoni- sta. Hain da nabarmena, ezin- bestez birpasatuko ditugula au- rreko aleak, bereziki arkumetxo- aren eta krokodiloari dagozkionak.

Lehen tituluan (*Afaltzera eto- rri zen arkumetxoa*) aurreragoko kontakizun guztien muina den otsoaren eta arkumearen adiski- detasun «ezohikoa» arrazoitu zitzaigun, otsoaren bakardadea-

ren, arkumearen egoera zailaren eta bien bihotz ontasunean erai- kia. Bigarren titulua (*...etorri- ren otsoak*) protagonista bien adiskidetasuna zalantzagabea dela azpimarratu zigun, eta hiru- garrenak (*...etorri zen krokodi- loa*) arkumetxoaren eta otsoaren harremana salbuespena ez, bai- zik eta hedakorra den maitasun unibertsal baten ondorioa dela iradoki zitzaigun.

Azken laugarren honetan, or- dea, tigrearen agerpenak maita- sun unibertsalaren ideari *baina* bat ekartzen dio...



'Afaltzera etorri zen tigrea'

Idazlea: Steve Smallman. Ilustratzailea: Joelle Dreidemy. Itzultzailea: Jone Hualde. Argitaletxea: Denonartean.

Zolda

HAUR ETA GAZTE LITERATURA

Imanol Mercero

Haur literaturak sortu dituen pertsonaien artean badira bi ele- fante aparteko. Babar da kronologikoki lehena, 1931n Jean de Brunhoffek sortua. Beste elefante gogoangarria Elmer da, 1968an D. McKeek sortu zuena.

Segur aski, errealitatean ani- malia horri izendatzen zaizkion dohain nabarmenek lagunduko zuten pertsonaia hauek erakus- ten duten antzeko profila eraiki- tzen. Euren ipuinak irakurtzeko aukera izan dugunok badakigu biak direla nobleak, ekintzaileak eta jendekoikiak. Zilegi da geure buruari galdetzea ea Batak (Ba- bar) bestearen (Elmer) sorkun- tzen zenbateko eragina izan zuen.

Elmerri dagokionez, bere ibil- bidean (autorea hil berri denez Elmerren titulu berriak agortu ote zaizkigu, ala tiraderaren bate-

an ezustekoak topatuko dituzte, Nikolas Txikirekin gertatu beza- la?) hiruzpalau dozena titulu daude ingelesez, artean margo- keta eta zenbaketa azpi- pro- duktuak. Euskaraz bederatzi ipuin ditugu. Azken hau (*Elmer eta oparia*) jatorrizko bertsoiare- kin batera kaleratu dute, McKee hilberrian dela.

Honegatik, agian, ipuin honek zaharrei zor diegun maitasuna eta pazientzia aldarrikatzen ditu, belaunaldien arteko elkarbizitza goratzen bezainbeste.



'Belaunaldien arteko maitasuna'

Idazlea eta ilustratzailea: David McKee. Itzultzailea: Danele Sarriugarte. Argitaletxea: Erein, Igeia.